### Bosgarrena

Foru Agindu hau «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitara dadila agintzea.

Bilbon, 2014ko apirilaren 16an.

Kulturako foru diputatua,
MIREN JOSUNE ARIZTONDO AKARREGI

### Quinto

Ordenar la publicación de la presente Orden Foral en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

Bilbao, a 16 de abril de 2014.

La diputada foral de cultura,
MIREN JOSUNE ARIZTONDO AKARREGI

## I. ERANSKINA / ANEXO I

| IKF<br>C.I.F. | Eskatzailea<br>Solicitante | Proiektua<br>Proyecto | Aurrekontu arazia (€)<br>Presupuesto depurado (€) | Puntuak<br>Puntos | Emandako kopurua (€)<br>Importe concedido (€) |
|---|---|---|---|---|---|
| A48140677 | ALTA SEGURIDAD, S.A. | 2014ko Euskara Planaren inplementazioa | 20.400,00 | 55 | 2.222,11 |
| A48944045 | AUTOBUSES LA UNION, S.A. | 2014ko La Union Autobusen Euskara Planaren diseinua eta garapena. | 32.693,49 | 60 | 3.884,95 |
| F48037600 | BATZ S COOP | Hizkuntzak kudeatzeko plana 2014 / Hizkuntzak kudeatzeko plana 2014 | 107.756,96 | 50 | 7.724,31 |
| A95547147 | BENGOZARRA ERAIKUNTZA METALIKOAK 1963, S.A. | 2014ko Euskara Plana | 24.600,00 | 70 | 1.549,93 |
| F48961668 | BIDEGINTZA PARA LA PROMOCION DEL DESARROLLO PERSONAL Y COMUNITARIO SCOOP | Bidegintzako euskara plana 2014 | 28.748,21 | 80 | 4.554,85 |
| B48180202 | BUSTURIALDE'KO IRRATI TELEBISTA, S.L. | Busturialdeko Irrati Telebistako 2014ko euskara plana | 13.888,00 | 80 | 1.346,73 |
| B75060988 | CAJA LABORAL BANCASEGUROS, S.L. | CLBSren 2014ko Euskara Planaren garapena | 38.462,98 | 60 | 4.570,54 |
| F48060289 | CIKAUTXO SCOOP | 2014 euskara plana | 79.626,47 | 65 | 5.065,57 |
| A48111439 | CLINICA V SAN SEBASTIAN, S.A. | 2014ko Vicente San Sebastián Klinikaren Euskara Planaren garapena | 68.462,63 | 45 | 6.101,54 |
| B48677033 | CONSULTORIO TECNOLOGIA PARA EL COMERCIO, S.L. | Euskara Plana Euskararen erabilera sustatzeko plana | 55.522,26 | 55 | 6.047,88 |
| B48046692 | CUADRA BUS, S.L. | 2014ko Kudeaketa Plana | 51.564,37 | 70 | 7.148,60 |
| F48067615 | EIKA SCOOPL | Euskararen erabilera plana 2014 | 256.715,76 | 60 | 22.879,06 |
| A95216297 | EKIN AUTOAK, S.A.L. | Euskara Plana 2014 | 26.607,50 | 70 | 2.121,45 |
| A48766695 | EUSKALTEL, S.A. | EUSKALTEL, Euskara Planaren garapena 2014 | 378.618,69 | 70 | 17.162,90 |
| A48408769 | GARBIALDI, S.A. | 2014ko Euskara Plana | 111.240,33 | 65 | 8.875,12 |
| B48706535 | GERNIKA GARBIKETAK, S.L. | 2014ko Euskara Plana | 15.570,00 | 50 | 1.224,93 |
| B95327557 | GESTION DEL CONOCIMIENTO ITZARRI, S.L. | Itzarri 2014. urtean euskara sustatzeko egitasmoaren garapena | 23.460,00 | 70 | 3.252,36 |
| A95321386 | IGUALATORIO MEDICO QUIRURGICO SA DE SEGUROS Y REASEGUROS | 2014ko Euskara Planaren inplementazioa | 23.400,00 | 65 | 1.235,83 |
| A48179196 | INDUSTRIA DE TURBO PROPULSORES, S.A. | ITP Euskara Plana 2014 | 25.000,00 | 55 | 2.723,18 |
| A48416820 | J.M. VIGIOLA, S.A. | Obtención Certificado Gestión Lingüística "Bikain" | 10.876,02 | 55 | 1.184,69 |
| F48071377 | KIDE SCOOPL | Koop. E.ko euskara plana | 159.316,00 | 70 | 14.609,30 |
| B48985295 | LEIOA BERRI AUTO, S.L. | Euskara Plana 2014 | 22.075,00 | 50 | 1.069,47 |
| F48067607 | MAIER SCOOP | Maier S.Coop.eko Euskara Plana 2014 | 120.550,00 | 55 | 2.806,18 |
| F48039507 | MIBA SCOOP | Mibako Euskara Plana | 21.336,46 | 60 | 2.535,40 |
| A95272928 | NATURGAS ENERGIA GRUPO, S.A. | NATURGAS ENERGIAKO EUSKARA PLANAREN DISEINUA ETA GARAPENA | 265.798,00 | 80 | 28.000,00 |
| A20079224 | SEGUROS LAGUN ARO, S.A. | 2014ko Lagun Aroren Euskara Planaren garapena | 100.162,34 | 70 | 13.885,95 |
| B48063127 | SOPENSA, S.L. | Proyecto de promoción del euskera del grupo COAS 2014 | 140.347,00 | 60 | 16.677,37 |
| A48018360 | TRANSPORTES COLECTIVOS, S.A. | Hizkuntza Kudeaketa Plana 2014 | 47.218,00 | 55 | 5.143,32 |
| F48028872 | ULMA CONVEYOR COMPONENTS S COOP | Ulma Conveyor-eko Euskara Plana, 2014 | 65.334,25 | 80 | 10.351,52 |
| A48025647 | VALERIANO URRUTIKOETXEA, S.A. | VUSAko Euskararen Normalizazio Plana 2014ko planaren garapena | 38.366,00 | 70 | 4.044,94 |
| GUZTIRA | | | | | 209.999,98 |

## II. ERANSKINA / ANEXO II

| IKF<br>C.I.F. | Erakundea<br>Entidad | Proiektua<br>Proyecto | Ezesteko arrazoia<br>Motivo de desestimación |
|---|---|---|---|
| F48037188 | MATRICI SCOOPL | Euskara planaren garapena 2014 | Izakundearen eskabidea epez kanpo aurkeztu da, eta beraz baztertuta gelditu da 188/2013 Foru Dekretuaren 4.2 artikuluaren arabera (2014ko otsailaren 4an aurkeztu zen eta epea 2014ko urtarrilaren 31an bukatu zen).<br>La entidad ha presentado la solicitud fuera de plazo y, en consecuencia, ha quedado excluida de conformidad con el artículo 4.2 del Decreto Foral 188/2013 (La solicitud se presentó el 4 de febrero de 2014 y el plazo finalizó el 31 de enero de 2014). |

(I-789)

## Ekonomia Sustatzeko Saila

**Bizkaiko Foru Aldundiaren 46/2014 FORU DEKRETUA, apirilaren 8koa bizkaiko lurralde historikoko artisautzako erakundeen erregistroari buruzkoa.**

Bizkaiko Lurralde Historikoko foru-organoek eskulangintzaren gaineko eskumen esklusiboa dute, Autonomia-Elkarte Osorako Erakundeen eta bertako Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Iharduntze-Erakundeen Arteko Harremanei buruzko 1983ko azaroaren 25eko 27/1983 Legeko 7.a)12. artikuluan ezartzen denaren arabera.

Eusko Jaurlaritza-Bizkaiko Aldundia Transferentzien Batzorde Mistoak, 1985eko otsailaren 27an hartutako erabakiaren bidez, eskumen horri atxikitako zerbitzu, langile, ondasun, eskubide eta betebeharrak ezarri zituen, eta, Eusko Jaurlaritzaren 1985eko martxoaren 5eko 93/1985 Dekretuaren eta apirilaren 18ko 42/1985 Foru Dekretuaren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiari eskualdatu zizkion.

## Departamento de Promoción Económica

**DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia 46/2014, de 8 de abril, del registro de entidades artesanas del Territorio Histórico de Bizkaia.**

La competencia en materia de artesanía es exclusiva de los Órganos Forales del Territorio Histórico de Bizkaia según lo dispuesto en el artículo 7 letra a) apartado 12 de la Ley 27/83 de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma Vasca y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos.

La Comisión Mixta de Transferencias Gobierno Vasco-Diputación de Bizkaia, mediante Acuerdo de 27 de febrero de 1985, procedió a determinar los servicios, personal, bienes, derechos y obligaciones adscritos a dicha competencia, habiéndose efectuado el correspondiente traspaso de los mismos a la Diputación Foral de Bizkaia, mediante Decreto del Gobierno Vasco 93/85, de 5 de marzo, y Decreto Foral 42/85, de 18 de abril.

cve: BAO-BOB-2014a079

Bizkaiko Foru Aldundiak bere gain hartu ondoren eskulangintzaren gaineko eskumena, Bizkaiko Lurralde Historikoko Artisauen Erregistroa sortu zuen, 1988ko martxoaren 30eko 37/1988 Foru Dekretuaren bidez, eta 1990eko maiatzaren 4ko 894/1990 Foru Aginduaren bidez garatu zuen.

Bada, Bizkaiko Artisauen Erregistro hori oso garrantzitsua izan da urteotan eskulangintzaren sektorea antolatzeko Bizkaian, eta handia izan da erregistroak horretarako egindako ekarpena. izan duen garrantzia eta egin duen ekarpena erakutsi du urteotan Bizkaiko Artisauen Erregistroak. Nolanahi ere, arestian aipatutako araudia onetsi zenetik hona denbora nahiko igaro denez zenbait aldaketa egin behar zaizkio, erregistroa finkatu eta modernizatzearren.

Eta aldaketa horien artean, besteak beste, hauek nabarmendu behar dira: aurrerantzean tramitazio elektronikoa egin ahal izango da —Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzko 2007ko ekainaren 22ko 11/2007 Legeak ezarritakoaren arabera—, erregistroan artisauen elkarteek ere eman ahal izango dute izena eta arautu egingo da erregistroko izen-emateak zer kasutan ezereztatuko diren.

Artisauen Erregistroaren izen osoa Bizkaiko Lurralde Historikoko Artisautzako Erakundeen Erregistroa izango da.

Artisauen Erregistroak orain arte izan dituen zenbait alderdi goitik behera aldatu gura direnez, komeni da, batetik, indarrean egon den araudi guztia indargabetzea eta, bestetik, Bizkaiko Lurralde Historikoko Artisautzako Erakundeen Erregistroa erregulatzeko testu berria onestea.

Bizkaiko Foru Aldundiaren 2012ko otsailaren 21eko 23/2012 Foru Dekretuko 1. artikuluan ezarritakoarekin bat (foru dekretu horren bidez, Ekonomia Sustatzeko Sailaren egitura organikoa onartzen da), Ekonomia Sustatzeko Sailari dagokio, jarduera-arlo gisa, eskulangintzako enpresak sustatzea.

Aurrekoa dela bide, eta Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 39. artikuluaren arabera, foru diputatuei dagokie foru sailaren antolaketa, zuzendaritza, kudeaketa, ikuskapena eta ordezkaritza; horrenbestez, honako hau

XEDATZEN DUT:

I. KAPITULUA

**XEDAPEN OROKORRAK**

**1. artikulua.—*Xedea***

Honako hauek arautzea da foru dekretu honen xedea: batetik, Bizkaiko Lurralde Historikoko Artisautzako Erakundeen Erregistroa; bestetik, erregistroan izena emateko prozedura eta, azkenik, erakunde bati artisautzako erakunde izaera aitortzeko era.

**2. artikulua.—*Organo eskuduna***

Ekonomia Sustatzeko Saila da araudi hau aplikatzeko organo eskuduna, berari baitagokio eskulangintzaren gaineko eskumena.

II. KAPITULUA

**ARTISAUTZAKO ERAKUNDEEN ERREGISTROA**

**3. artikulua.—*Erregistroaren izaera***

1. Bizkaiko Lurralde Historikoko Artisautzako Erakundeen Erregistroak administrazio-izaera du eta doakoa eta publikoa da, foru dekretu honetan ezarritako baldintzetan.

2. Artisautzako Erakundeen Erregistroak hiru atal izango ditu:

— Lehenengo atala: Pertsona fisiko artisauen errolda.

— Bigarren atala: Artisautzako enpresen errolda.

— Hirugarren atala: Artisautzako elkarteen errolda.

3. Erakunde interesdunek emandako datuak bakar-bakarrik erabiliko dira Artisautzako Erakundeen Erregistroan ezarritako helburuetarako, eta berariaz bete behar dira 1999ko abenduaren 13ko

En ejercicio de esta competencia la Diputación Foral de Bizkaia creó el Registro de Artesanos del Territorio Histórico de Bizkaia mediante el Decreto Foral 37/88 de 30 de marzo, desarrollado mediante la Orden Foral 894/90 de 4 de mayo.

El Registro de Artesanos de Bizkaia ha demostrado su trascendencia y contribución como instrumento para la organización del sector de la artesanía en Bizkaia. Sin embargo, y dado el tiempo transcurrido desde la aprobación de esta normativa resulta conveniente para la consolidación y modernización de este registro introducir en la misma determinadas modificaciones.

Así cabe señalar, entre otras, la inclusión de la tramitación electrónica según lo establecido en la Ley 11/2007 de 22 de junio de acceso electrónico de los ciudadanos a los Servicios Públicos, la introducción de las asociaciones de personas artesanas como entidades objeto de inscripción, así como la regulación de los supuestos de cancelación de las inscripciones efectuadas.

El Registro de Artesanos se denominará Registro de Entidades Artesanas del Territorio Histórico de Bizkaia.

Dada la importancia de las modificaciones expuestas que pretenden mejorar los distintos aspectos que han configurado el Registro de Artesanos resulta conveniente derogar toda la normativa vigente y aprobar un nuevo texto regulador del Registro de Entidades Artesanas del Territorio Histórico de Bizkaia.

Según lo previsto en el artículo 1 del Decreto Foral de Bizkaia 23/2012 de 21 de febrero, por el que se aprueba el reglamento de estructura orgánica del Departamento de Promoción Económica le corresponde al mismo, como área de actuación, el fomento de la actividad artesanal.

Por todo ello y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 39 de la Norma Foral 3/1987 de 13 de febrero, sobre elección, organización, régimen y funcionamiento de las instituciones forales del Territorio Histórico de Bizkaia, compete a los diputados forales la organización, dirección, gestión, inspección y representación del Departamento Foral en virtud del cual

DISPONGO:

CAPÍTULO I

**DISPOSICIONES GENERALES**

**Artículo 1.—*Objeto***

Es objeto del presente Decreto Foral la regulación del régimen de funcionamiento del Registro de Entidades Artesanas del Territorio Histórico de Bizkaia, el procedimiento de inscripción, y el reconocimiento de la condición de entidad artesana.

**Artículo 2.—*Órgano competente***

Será órgano competente para la aplicación de la presente normativa el Departamento de Promoción Económica competente en materia de artesanía.

CAPÍTULO II

**DEL REGISTRO DE ENTIDADES ARTESANAS**

**Artículo 3.—*Naturaleza del registro***

1. El Registro de Entidades Artesanas del Territorio Histórico de Bizkaia tiene naturaleza administrativa y carácter gratuito y público en los términos establecidos en el presente Decreto Foral.

2. El Registro de Entidades Artesanas se organiza en tres secciones:

— Sección Primera: Censo de personas físicas artesanas.

— Sección Segunda: Censo de empresas artesanas.

— Sección Tercera: Censo de Asociaciones Artesanas.

3. Los datos aportados por la entidad interesada se utilizarán, con carácter único y exclusivo para los fines establecidos en el Registro de Entidades Artesanas, con estricta sujeción a la Ley

cve: BAO-BOB-2014a079

15/1999 Lege Organikoa (Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoa) eta, bereziki, lege hori garatzeko erregelamendua onetsi zuen 2007ko abenduaren 21ko 1720/2007 Errege Dekretuko 2.2 eta 2.3 artikuluak.

Erroldak ez du inoiz sarbiderik izango merkataritzako edo industriako sekretuak babestutako gaietara, 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 37.5.d) artikuluan ezarritakoaren arabera (lege hori Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena da, eta 1999ko urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen).

4. Bizkaiko Lurralde Historikoko Artisautzako Erakundeen Erregistroko datu hauek publikoak izango dira:

— Marka komertzialak.

— Izen-abizenak edo artisautzako erakundearen izenak.

— Egiten diren lanbideak edo jarduerak.

— Jardueren deskripzioa.

— Sozietate-helbideak edo jardueraren helbideak.

— Telefono-zenbakiak.

— Erakundeen web atariak, posta elektronikoko helbideak eta/edo blogak.

— Bizkaiko Lurralde Historikoko Artisautzako Erakundeen Erregistroko erregistro-zenbakiak.

**4. artikulua.—*Erregistroaren helburua***

Bizkaiko Lurralde Historikoko Artisautzako Erakundeen Erregistroan hauek inskribatu behar dira: artisauak diren pertsona fisikoak edo juridikoak nahiz halakoen elkarteak, azken horiek artisautza sustatzeko ekintzak egiten badituzte Bizkaian.

a) *Artisautzako enpresak*

Enpresa bat artisautzako enpresa izango da eta, horrenbestez, izena eman beharko du erregistro honetan baldin eta pertsona fisiko edo juridikoa bada, Bizkaiko Lurralde Historikoko artisaulanbideen bilduman jasotako artisau-jardueretako bat edo gehiago egiten baditu —bosgarren artikuluko definizioarekin bat— eta erregistroan izena emanda dagoen bitartean honako baldintza hauek ere betetzen baditu:

— Sozietatearen egoitza eta zerga-egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea.

— Ekoizpen-gunea edo lantegia Bizkaiko Lurralde Historikoan kokaturik egotea.

— Artisautzako jarduera bat edo gehiago egitea, eta jarduerak izan behar dira dekretu honetako 5. artikuluan jasotakoak eta Bizkaiko artisau-lanbideen bilduman jasotakoak jotzen dira halakotzat.

— Artisau-jarduera ez egitea noizean behin, modu osagarrian eta aldi baterako.

— Ekonomia Jardueren gaineko Zergan alta emanda egotea, artisau-jarduera bakoitzari dagokion epigrafean.

— Gizarte Segurantzaren dagokion araubidean alta emanda egotea.

— Hala badagokio, erakundean, modu iraunkorrean, gehienez ere familiartekoak ez diren hamar pertsona enplegatuta izatea, aprendizak aparte utzita.

Ekonomia Sustatzeko Saileko titularrak azken baldintza hori betetzetik salbuetsi dezake erakunde bat, baldin eta erakunde horrek hala eskatzen badu eta gainerako baldintza guztiak betetzen baditu; salbuespena eman ala ez erabakitzeko, kontuan hartuko da erakundeak artisautzako zer jarduera egiten dituen.

Edozelan ere, baldintzak bete behar dira bai erregistroan izena ematen denean, bai eta gero ere, erregistroan jarraitu ahal izateko.

b) *Artisautzako elkarteak*

Elkarteek izena eman ahal izango dute erregistroan baldin eta behar bezala eratutako pertsona juridikoak badira eta haien estatutuetako xede nagusia artisautza sustatu eta defendatzea bada.

Orgánica 15/99, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal y en particular los artículos 2.2 y 2.3 de su reglamento de desarrollo, Real Decreto 1720/2007, de 21 de diciembre.

En ningún caso se tendrá acceso a las materias protegidas por el secreto comercial o industrial según lo determinado en el artículo 37.5 d) de la Ley 30/92, de 26 de noviembre, modificada por la Ley 4/99 de 13 de enero de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

4. El Registro de Entidades Artesanas de Bizkaia será público respecto a los siguientes datos:

— Marca comercial.

— Nombre y apellidos o denominación de la entidad artesana.

— Oficio o actividad desarrollada.

— Descripción de la actividad.

— Domicilio social o de la actividad.

— Número de teléfono.

— Portal web de la entidad, dirección de correo electrónico y/o blog.

— Número de registro en el Registro de Entidades Artesanas del Territorio Histórico de Bizkaia.

**Artículo 4.—*Objeto del registro***

Son objeto de inscripción en el Registro de Entidades Artesanas del Territorio Histórico de Bizkaia las personas físicas o jurídicas artesanas y las asociaciones de éstas que desarrollen acciones para el fomento de la artesanía en Bizkaia.

a) *Empresas artesanas*

Tendrá la condición de empresa artesana objeto de inscripción en este registro la persona física o jurídica que realice, según la definición del artículo cinco, una o varias de las actividades artesanales incluidas en el Repertorio de Oficios Artesanos del Territorio Histórico de Bizkaia cumpliendo además durante todo el tiempo de permanencia como entidad inscrita los siguientes requisitos:

— Domicilio social y fiscal en el Territorio Histórico de Bizkaia.

— Centro de producción o taller en el Territorio Histórico de Bizkaia.

— El desempeño de una o varias actividades artesanas, entendiéndose como tal las descritas en el artículo 5 del presente decreto e incluida en el Repertorio de Oficios Artesanos de Bizkaia.

— No realizar la actividad artesanal de una forma ocasional, accesoria o temporal.

— Encontrarse en situación de alta en el Impuesto de Actividades Económicas en el correspondiente epígrafe artesano.

— Encontrarse en situación de alta en el régimen correspondiente de la Seguridad Social.

— En su caso, contar con un número de personas no familiares empleadas con carácter permanente que no exceda de diez, excepción hecha del personal aprendiz.

La persona titular del Departamento de Promoción Económica podrá eximir del cumplimiento de este último requisito, previa solicitud, si la entidad cumple el resto de las condiciones impuestas, atendiendo principalmente a las actividades artesanales desarrolladas por la entidad.

Los requisitos deberán cumplirse tanto en el momento de la solicitud de inscripción como para la permanencia dentro del registro.

b) *Asociaciones artesanas*

Son asociaciones objeto de inscripción en este registro las personas jurídicas legalmente constituidas que tengan como objeto principal de sus estatutos el fomento y la defensa de la artesanía.

cve: BAO-BOB-2014a079

Gainera, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

— Zerga-egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea.

— Ekonomia Jardueren gaineko Zergan alta emanda egotea, artisau-jarduera bakoitzari dagokion epigrafean.

— Gutxienez hiru kide izatea eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Artisautzako Erakundeen Erregistroan izena eman eta bi urtera gutxienez bost kide izatea. Emakumeen eta gizonen kopurua orekatuta egotea.

Baldintzak bete behar dira bai erregistroan izena ematen denean, bai eta gero ere, erregistroan jarraitu ahal izateko.

**5. artikulua.—*Artisautzaren definizioa***

Foru dekretu honen ondorioetarako, hau izango da artisautza: ondasun artistikoak eta elikagai gisa kontsumitzekoak ez diren ondasunak sortu, ekoitzi, eraldatu eta konpontzea helburu duen enpresa-jarduera, eta horretarako manufakturako sistema bereziak erabili behar ditu, non funtsezkoa izan behar den pertsonen parte-hartzea ondasunak ekoitzi nahiz akaberak egiteko prozesua kontrolatzeko.

Bada, jarduera horiek egiteko teknika tradizionalak zein berritzaileak ezagutu eta menperatu behar dira, dela lehengaiak hautatu eta haien tratamendua egiteko, dela lehengaiok zentzu estetikoarekin konbinatzeko, eta prozesu horren guztiaren emaitza produktu indibidualizatu bat izan behar da, ekoizpen industrial mekanizatuaren edo serie handiko ekoizpenaren bidez lortu ezin dena.

**6. artikulua.—*Erregistroaren antolamendua eta atxikipena***

1. Bizkaiko Lurralde Historikoan Artisautzako Erakundeen Erregistro bakarra dago, eta Ekonomia Sustatzeko Foru Sailari atxikiko zaio. Erregistroan izena ematea borondatezkoa da eta erakunde interesdunek eskatuta egiten da.

2. Ekonomia Sustatzeko Foru Sailari dagokio erregistroa kudeatzea, eskatzaileek aurkeztutako idazkiak eta dokumentazioa aztertu eta onartzea, idazki-dokumentuok konpultsatu eta autentifikatzea, erregistro-inskripzioak egitea eta, oro har, erregistroak ondo eta modu eraginkorrean funtzionatzen duela bermatzeko beharrezkoak diren jarduketa guztiak.

III. KAPITULUA

**ERREGISTROAN IZENA EMATEKO PROZEDURA**

**7. artikulua.—*Erregistroan izena emateko eskabidea***

1. Eskabidea egin behar da, hain zuzen ere, horretarako dagoen eredu normalizatua erabiliz.

2. Eskabidea egiteko ereduak Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomia Sustatzeko Sailaren webean lortu eta bete daitezke. Sailean bertan ere egongo dira interesdunen eskura.

3. Izena emateko eskabidean bertan, pertsona fisiko eskatzaileek beren-beregiko baimena eman diezaiokete Ekonomia Sustatzeko Saileko organo kudeatzaileari, organo horrek eska ditzan foru dekretu honetako 8.A.2 artikuluan aipatzen diren dokumentuak nahiz tributu-administrazioak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak eman beharreko ziurtagiriak (artikulu horretako 4., 5. eta 6. puntuetan aipatzen dira ziurtagiriok). Beren-beregiko baimenik ematen ez bada, interesdunak berak aurkeztu beharko ditu dokumentu-ziurtagiriok.

4. Izena emateko eskabidean bertan, pertsona juridiko eskatzaileek beren-beregiko baimena eman diezaiokete Ekonomia Sustatzeko Saileko organo kudeatzaileari, organo horrek eska ditzan tributu-administrazioak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak eman beharreko ziurtagiriak (foru dekretu honetako 8. artikuluko 2., 3. eta 4. puntuetan aipatzen dira ziurtagiriok). Beren-beregiko baimenik ematen ez bada, interesdunak berak aurkeztu beharko ditu dokumentu-ziurtagiriok.

5. Izena emateko eskabidean bertan, artisautzako erakundeen elkarteek beren-beregiko baimena eman diezaiokete Ekonomia Sustatzeko Saileko organo kudeatzaileari, organo horrek eska dezan tributu-administrazioak eman beharreko ziurtagiria (foru dekretu honetako 8.C.2 artikuluan aipatzen da ziurtagiri hori).

Además, deberán cumplir los siguientes requisitos:

— Domicilio fiscal en el Territorio Histórico de Bizkaia.

— Encontrarse en situación de alta en el Impuesto de Actividades Económicas en el correspondiente epígrafe artesano.

— Estar constituida por al menos tres miembros y alcanzar al menos un mínimo de cinco a los dos años desde la inscripción en el Registro de Entidades Artesanas del Territorio Histórico de Bizkaia. La presencia de mujeres y hombres deberá ser equilibrada.

Los requisitos deberán cumplirse tanto en el momento de la solicitud de inscripción como para la permanencia dentro del registro.

**Artículo 5.—*Definición de artesanía***

Se considera artesanía, a efectos de este Decreto Foral, la actividad empresarial que tiene como objeto la creación, producción, transformación y reparación o restauración de bienes artísticos y de consumo no alimentario, mediante sistemas singulares de manufactura en los que la intervención personal es determinante para el control del proceso de elaboración y acabado.

Esta actividad estará basada en el dominio y conocimiento de técnicas tradicionales o innovadoras en la selección y tratamiento de las materias primas y/o en el sentido estético de su combinación y tendrá como resultado final un producto individualizado, no susceptible de una producción industrial totalmente mecanizada o en grandes series.

**Artículo 6.—*Organización y adscripción del registro***

1. El Registro de Entidades Artesanas del Territorio Histórico de Bizkaia es único y se adscribe al Departamento Foral de Promoción Económica. La inscripción en el mismo es voluntaria y se realiza a solicitud de las entidades interesadas.

2. Corresponderá al Departamento Foral de Promoción Económica la llevanza del registro, el examen y admisión de escritos y documentaciones presentadas por los solicitantes, la compulsa y autenticación de los mismos, las inscripciones registrales y, en general cualquier actuación encaminada a asegurar el correcto funcionamiento y operatividad del mismo.

CAPÍTULO III

**PROCEDIMIENTO DE INSCRIPCIÓN EN EL REGISTRO**

**Artículo 7.—*Solicitud de inscripción en el registro***

1. La solicitud de inscripción se efectuará según modelo normalizado.

2. Los modelos de solicitud se podrán obtener y cumplimentar en la página web del Departamento de Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia. Igualmente estarán a disposición de las personas interesadas en el propio Departamento foral.

3. Las personas físicas solicitantes podrán otorgar en la solicitud de inscripción autorización expresa al órgano gestor del Departamento de Promoción Económica para recabar los documentos recogidos en el punto 2 del artículo 8 letra A del presente Decreto Foral así como los certificados a emitir por la Administración Tributaria y por la Tesorería General de la Seguridad Social recogidos en los puntos 4, 5 y 6 de dicho artículo. De no quedar constancia expresa de dicha autorización, deberán aportarse directamente por la persona interesada.

4. Las personas jurídicas solicitantes podrán otorgar en la solicitud de inscripción autorización expresa al órgano gestor del Departamento de Promoción Económica para recabar los certificados a emitir por la Administración Tributaria y por la Tesorería General de la Seguridad Social recogidos en los puntos 2, 3 y 4 del artículo 8 letra B del presente Decreto Foral. De no quedar constancia expresa de dicha autorización, deberán aportarse directamente por la persona interesada.

5. Las asociaciones de entidades artesanas podrán otorgar en la solicitud de inscripción autorización expresa al órgano gestor del Departamento de Promoción Económica para recabar el certificado a emitir por la Administración Tributaria recogido en el punto 2 del artículo 8 letra C del presente Decreto Foral.

cve: BAO-BOB-2014a079

**8.- artikulua.—*Nahitaezko dokumentazioa***

Erregistroan izena emateko nahiz artisautzako erakunde izaera aitortzeko —telematikoki nahiz bertaratuta— aurkezten diren eskabideak bete egin behar dira, eta nahitaezko dokumentazio hau erantsi behar zaie:

A) *Pertsona fisiko artisauen kasuan:*

1. Eskabidea, behar bezala beteta.

2. Nortasun Agiri Nazionalaren, pasaportearen edo Batasuneko bizileku-txartelaren kopia. Batasunekoak ez diren pertsonen kasuan, bizileku-baimena eta lan-baimena edo hemen bizitzeko edo lan egiteko gaitasuna ematen dien beste edozein dokumentu.

3. Bizkaiko udalerriren bateko erroldatze-ziurtagiria.

4. Ekonomia Jardueren gaineko Zergan alta emanda egotea egiaztatzea, artisau-jarduera bakoitzari dagokion epigrafean.

5. Gizarte Segurantzaren dagokion araubidean alta emanda egotea egiaztatzea.

6. Kotizazio-kontu guztien lan-bizitzari buruzko ziurtagiria edo besteren kontura diharduten langileak ez izateari buruzko zinpeko aitorpena.

7. Egindako lanen lau argazki.

8. Memoria grafikoa (irudiekin), piezak egiteko prozesu osoa erakusteko, eta ofizioa egiten den lekuaren eta bertan erabiltzen diren tresnen irudiak ere bai.

B) *Pertsona juridiko artisauen kasuan:*

1. Eskabidea, behar bezala beteta.

2. Ekonomia Jardueren gaineko Zergan alta emanda egotea egiaztatzea, artisau-jarduera bakoitzari dagokion epigrafean.

3. Gizarte Segurantzaren dagokion araubidean alta emanda egotea egiaztatzea.

4. Kotizazio-kontu guztien lan-bizitzari buruzko ziurtagiria edo besteren kontura diharduten langileak ez izateari buruzko zinpeko aitorpena.

5. Egindako lanen lau argazki.

6. Memoria grafikoa (irudiekin), piezak egiteko prozesu osoa urratsez urrats erakusteko, eta ofizioa egiten den lekuaren eta bertan erabiltzen diren tresnen irudiak ere bai.

C) *Artisautzako erakundeen elkarteen kasuan:*

1. Eskabidea, behar bezala beteta.

2. Ekonomia Jardueren gaineko Zergan alta emanda egotea egiaztatzea, artisau-jarduera bakoitzari dagokion epigrafean; zerga hori dela-eta ordaindutako egindako azken ordainketaren agiria ere aurkeztu behar da, zerga hori ordaindu behar denean.

3. Elkarteko idazkariak edo organo eskudunak emandako ziurtagiria, non egiaztatzen den elkarteko kide diren artisau indibidualetatik eta artisautzako enpresetatik zenbat diren Bizkaiko Lurralde Historikokoak.

**9. artikulua.—*Eskabideen aurkezpena***

